

Itxialdi itxaropentsua

Erraza da, sano, bizi ari garen itxialdiari alde txarra antzematea, kalteak alde guztietatikoak direlako, ezbairik gabe.

Baina, etxeaz bestaldean jazotzen ari den hondamendia (heriotzak, beldurrak, ezintasunak...) alde batera utzita, nik egoera honetan irabazten ari garena lehenetsi nahiko nuke. Ez dadila izan baikortasun faltagatik...

Etxean horren denbora luzea emateak, norberaren buruarekin topatzea ahalbidetu du, baita sarritan ondoan baina ez gertu genuen senitartearekin.

Korrika, belu, iradu, berandu eta karraka genbiltzan beti azken hamarkadetan, existitzen ez zen helmugara heldu ezinean. Zeruak, lurra eta urak gure mende ipinita, gure nahietara bortxatuta, lor ezin zitekeen entelekia horretara iristeko.

Aitzitik, itxialdiak, bat-bateko iraultza ekarri digu. Hausnarketarako beta — aukera— berreskuratu dugulako. Egiten ari ginen guztiaren hankaz gorako itzulipurdia. Eta ez iraultza aurrerakoia, izan ginenera itzultzekoa baizik. Bestela esanda, atzearekin besarkatutako aurrerakoitasuna. Ez da makala...

Eta, nahigabeen eta nahitaezean, falimiarekiko harreman estua deskubritu berri dugu. Umeei ipuinak kontatzeko ohitura lasaia berpiztu, lilura-berbak bihotz-taupaden erritmo daramatela... Eta sukaldean elkarrekiko lana, gerora gustura jango dugun jaki konplexu eta miresgarria atontzen.

Leihoak irekita, bizilagunak ditugula aurkitu dugu: ez soilik etxekideak, auzokodeak, herrikideak... pertsonak baizik. Ahaztua genuen zer bait.

Eta, hor, bentanen bestaldean, alde berean urrutian eta aldean, inoiz baino ozenago jarduten txoriak, txorrotxioka, ero, giza-oztopo gutxi dutelako euren bizia aurrera ateratzeko. Eta, urak garbi-gardenak, eta zeruak hegazkin-lorrazik gabekoak. Noiztik?

Gaurko elurte iragarpena ere ez da albiste. Ez behintzat itxialdi aurretiko amplifikazioarekin, arrunta ezohiko bihurtzeko obsesio modernoarekin.

Martxoan elur aritzea ez delako apartekoa. Bizian, tamalez, heriotza arrotza ez den bezala. Agian gu ginen itxialdi hau izan arteko munduarekiko arrotz bakarrak. Arrotzak, harrotzarrak.

Zaindu zaitezke eta bizi eta goza galdua genuen bizipoza. Baita itxialdi itxaropentsu honetan ere.

Felix